

# Nortasunak

Gaztaroa, adierazpena, izaera eta jarrera  
ARGAZKI ETA BIDEO DIGITALEN LEHIAKETA

14 Urteik 25era Bitarteko Gazteentzat • Jasotzeko epea: 2017ko Urriaren 16ra arte



# identidades

Juventud, expresión, forma y actitud  
CERTAMEN DE FOTOGRAFÍA Y VIDEO DIGITAL

Para Jóvenes de 14 a 25 Años • Plazo admisión: hasta el 16 de octubre 2017

## Gazte Klik-Klak

## 2017

### → GAIA: NORTASUNAK

Gaztaroa, adierazpena, izaera eta jarrera.

Jakin nahi dugu nola egiten diozu aurre bizi garen garaiari, eta horretarako gazteen jarreraren adierazpena bitartzen dugu. Nola ikusten duzu zeure burua?, nola adierazten duzu barruan daukazu guztia?, zein da zure jarrera?

Argazkilaritza edo bideo sorkuntzen bitartez azaltzen zaren eta nola nabarmetzen zaren jakin nahi dugu, itxuraren bitartez edo jarreraren bitartez definitzen duzun zure burua, mugimendu edo kolektibo baten partaide zaren, nola aldarrikatzen duzun zure izaera, zure ideiak, zure bizitza, komunitate baten partaidea zaren.

### → PARTE HARTZAILEAK

Gasteizen bizi diren edo ikasten duten 14 urteik 25era bitarteko gazteak.

Aukeratutako eta saritutako parte-hartzaileei Gasteizen daudela egiaztatzeko agiriak eskatu ahalko zaizkie.

Parte hartzaileek ezin dute saria jaso bi urtez jarraian; hala ere, bere lanak hautatu ahal izango dira lehiaketa honen hainbat erakusketatarako.

### → LANEN KOPURUA ETA KALITATEA

Parte hartzaile bakoitzak lan bi besterik ezin du aurkeztu lehiaketara.

- Argazki lanak sortatan aurkeztuko dira. Sortek 3 argazki izango dituzte gutxienez; eta 5, gehienez. Argazkiek JPG formatukoak, 20 x 30 cm-ko irteera tamainakoak eta gutxienez 300 ppp (pixel hazbeteko) bereizmenekoak izan behar dute.
- Bideoz edo gif bidez egindako proposamenek gehienez 5 minutu iraungo dute. Mp4 formatuan aurkeztu behar dira.

### → LANAK BIDALTZEA

Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoan (GAUB). Plaza Berria, 01001, Vitoria-Gasteiz. Orduetgia (astelehenetik ostiralera): 10:00 - 14:00 eta 17:00 - 19:00 (astearte eta ostegunetan)

Lanak CD edo DVD batean aurkeztu behar dira, sinatu gabeko gutun-azal batean sartuta. Gutun-azalean lanaren izena eta "Gazte Klik-klak" erreferentzia jarri behar dira. Barruan beste gutun-azal bat sartu behar da, datu eta dokumentu hauek dituen: egilearen izen-abizenak, adina, harremanetarako telefonoa, posta elektronikoa eta NANaren fotokopia. Gutun-azal horren kanpoaldean lanaren izena eta

"Gazte Klik-klak" erreferentzia jarri behar dira.

Posta elektronikoz gazteklikklak@gmail.com helbidera bidaliz gero, "Gaian" Gazte Klik-klak jarriko da. Mezuan edo itsatsitako artxiboan, lehiaketara proposatuko lanaz gain, honako datu hauek adierazi behar dira: izen-deiturak, adina, harremanetarako telefonoa eta NAN zenbakia. Jasoko ditugun lan guztiek konfirmazioa izango dute posta elektronikoz.

Lan bakoitzak izenburua izan behar du. Izenbururik gabekoak ez dira lehiaketan sartuko.

### → JASOTZEKO EPEA

2017ko irailaren 1etik urriaren 16ra bitartean, biak barne.

### → ERAKUSKETA

Aurkezten diren argazkien sortekin erakusketak egingo da 2017ko azarotik aurrera. Beharrezkoa bada, epaimahaia aurkeztutako lanen artean kalitaterik onenekoak aukeratu ditu eta kontuan hartuko da erakusketarako zenbat leku dagoen.

Aldi berean, Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) erakusketak birtual bat egingo da aurkeztutako lanekin. Beharrezkoa bada, epaimahaia aurkeztutako lanen artean kalitaterik onenekoak aukeratu ditu eta kontuan hartuko da erakusketarako zenbat leku dagoen.

### → SARIAK

Lau sari emango dira. Sariak ezin izango dira metatu, eta, hortaz, ez zaizkie egile berari emango. Sari bakoitzak honako sari horridura izango du:

- 300 euroko bono trukagarri bat, argazki, bideo edo kultura materiala erosteko.
- Lau sarituek parte hartuko dute taldeko erakusketak batean gure hiriko argazkilaritzan eta artean adituak diren hainbat artistaren tutoretzapean. Erakusketak 2018ko lehenengo lauhilekoan izango da. Katalogo bat argitaratuko da parte-hartzaileen lana eta ibilbidea jasoko dituen.

### → EPAIMAHAI

Vitoria-Gasteizko Udalaren Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Sailaren Gazteria Zerbitzuak izendatuko du epaimahaia. Epaimahaia lanen originaltasunaz gain, bai eta gaiarekiko lotura, bai kalitate artistikoa eta teknikoa balioztatuko du.

### → EPAIA

Azaroko lehenengo hamabostaldian zehar argitaratuko da epaia, Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) nahiz Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoan.

### → OHARRAK

Lehiaketa edo oinarri hauei buruzko edozein galdera argitzeko honako posta elektronikora jo dezakezue gaian Gazte Klik-klak adieraziz: gazteklikklak@gmail.com.

Argazkiek argitaratu gabeak eta jatorrizkoak izan behar dute.

Aurkeztutako argazkiak Gazteria Atalaren esku geratuko dira, eta argazki horiek erabili nahiz kopiatzeko eskubidea beretzat gordetzen du, betiere egilearen izen-abizenak aipaturik.

Lehiaketaren antolatzaileek argazkien baliozkotasuna erabakiko dute, eta argazkiren batek baldintza teknikoak betetzen ez baditu edo arrazoiren baten-gatik (iraingarria izateagatik, esaterako) lehiaketaren izpirituekin bat ez datorrela uste badute, ez argitaratzea erabaki ahalgo dute.

Ezin da onartuko edozein marka edo produkturen publizitatea egitea. Hori arrazoi izan daiteke antolatzaileek aurkeztu den lana baztertzeko.

Parte hartzaile bakoitzak baimena behar du bereak ez diren soinu banda, musika edo irudia erabiltzeko, baita ondo aipatu ere erabili duen lizentzia, Creative Commons artxiboak erabiliz gero.

Webgunean argitaratzeko, gomendatu den tamainaz gorako neurri egokiak emango zaizkie argazkiei.

Parte hartzaileek oinarri hauek guztiak, bai eta epaimahaiaren erabakiak ere, onartzen direla dakar berekin.

Antolatzaileek bere esku izango dute oinarri hauetan jaso ez den edozein gorabehera ebaztea.

Ematen ari zaren datuak erakunde honek dituen datu pertsonalen fitxategian sartuko direla jakinarazten dizu Vitoria-Gasteizko Udalak, EKINTZEN KUDEAKETA ETA ZABALKUNDEA izena duen fitxategian zehazki, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez. Fitxategi horren helburua udal eskumenen alorrean Udalak antolatutako kultur edo gizarte ekintzak kudeatu, zabaldu eta sustatzea da. Zure eskubideez baliatu nahi baduzu -dagozkizun datuak ikusi, aldatu, ezetzatu edo kontra agertu-, jo ezazu udaletxeko Argibide Bulegora (Teodoro Dublang 25, 01008 Vitoria-Gasteiz) edo Herritarrei Laguntzeko Bulegoetara.